



## Atezainaren larria penalti-jaurtiketan

Peter Handke

Irakurri berri dudan liburua Peter Handkek praktikatzen duen literatura-motaren adierazgarria baldin bada, ez dut idazle hau ezagutzen jarraitzeko aparteko interesik. Liburu batekin, nahikoa dut. Behintzat, bolada luze baterako.

Saizarbitoria ekarri dit gogora, liburuaren "arima" bilakatzen diren zehaztasun hutsalak kontatzeko daukan estiloarengatik, hitzak harea-erloju erraldoi baten harea-pikorrek izango bailiran.

Gai horretan aditua ez banaiz ere, existentzialisten mundua ere ekarri dit gogora; badakizue, Sartre buru zuen mugimenduko kideak nonahi botaka ibiltzen zirenean, den-denak oka eragiten zielako.

Aldiz, bere etxera eta bere ohera gonbidatu berri duen emakume ezezaguna bere eskuekin itotzeak ez omen dio okarik eragiten liburuko protagonista kankailuari. Antza denez, horrela adierazten ditu esker ona, maitasuna eta begirunea. Psikopata baten, buruz gaixorik dagoen gizon baten erretratua ote? Tira ba, egileak estilo berezi horrekin erretratatu nahi zuena hori baldin bada... orduan ados. Gaixo mental bat da, eta nolabait esanda, horrela omen du ikusten mundua:

"Kristalean euli bat zebilen, gora eta behera —beherago, gorago baino—. Orduan, kordokatu ninduen zerbait gertatu zen: eulia une batez bistatik galdu nuen. Baina, gutxienean espero nuenean, eulia berriro hantxe zegoen, kristalean gora eta behera —beherago, gorago baino—. Halako batean, eulia geldi-geldi geratu zen, kristalari atxikita bezala, etsita, bestaldera sekula lortuko ez zukeelakoan. Tanpez, eulia niri begira geratu zela iruditu zitzaidan, eta saiatu nintzen harekin hitz egiten. Baina ezin."

Goiko paragrafoa, komatxo artean jarri dudana, ez dut liburutik atera, nik neuk asmatu dut; karikatura bat da, Peter Handkeren estiloaren karikatura bat, ez besterik. Horraino nazkatzen naute mota horretako planteamenduek. Nazkatu edo... urduritu, edo bi gauzak batera

Beste aukera bat ere badago: Peter Handkek ez du psikopata zorritsu bat erretratatu nahi, soilik; liburu honetan, gizon garaikidea ere erretratatu nahi du (?). Kasu horretan, gizaki hori opari egiten diot. Harentzat betiko. Dena den, nik ez dut uste gizakia hori denik. Horrela gizaki bat erretrata daiteke, baina gizakia ez. Batzuetan, intelektual ona izateko, gutxiago irakurri eta gehiago bizi behar da.

Nolanahi ere, hemen denontzako tokia dago. Hainbeste liburu, egile, taberna eta gizaseme daude munduan, non, nahikoa baita banaka batzuekin ondo moldatzea; ez da beharrezkoa bidean topatzen ditugun "produktu" guztiei, eskuetara iristen zaizkigun

liburu guztiei eta ezagutzen ditugun pertsona guztiei geure bedeinkazioa ematea. Ondo dago, hala ere, ezagutza egitea eta jarraian aukeratzea. Eta gero, bakoitzak hel diezaiola bere bideari, hala behar baldin badu.

Burura etorri zaidan beste pentsamendu bat Vasiaren<sup>1</sup> eta Blochen arteko alde ikaragarria izan da. Vasia hezur-haragizko pertsonaia da, gizateriaren ongizateak ardura dio; Bloch astazakila, ordea, zonbi patetiko bat da, arrazoirik bat ere behar ez duena norbait hiltzeko. Vasia urrats irmoz dabil bizitzan eta badaki nora doan; Bloch, ordea, ez doa inora, bizitzan zehar noraezean dabil... ostikoka (literalki). Vasiak maitatu egiten du; Bloch, ordea, saiatu ere ez da egiten maitatzen. Baliteke Vasia pentsamendu kolektiboan pittin bat disolbaturik geratzea (haren eskuzabaltasunaren ondorioz); Bloch, ordea autoezabatu egiten da indibidualismo basa, zeharkaezin eta suntsigarri batean.

Liburuaren amaiera aldean gauza bat baino ez nuen irrikatzen: ea harrapatzen duten eta kartzelara eramaten, behin kartzelan izango baitu astia soberan eulien mundu zoragarria aztertzen jarraitzeko... Labur esanda: ez bere buruari ez gizarteari inongo ekarpenik egiten ez dien pertsonaia honetaz libratzeko kristoren gogoia neukan.

Azkenik, esango nuke liburu honek ez diola itzultzaileari bere trebeziak nabarmentzeko aparteko aukerarik ematen. Hau da, prosa ez da korapilatsuegia, eta esaldi aski laburretan dosifikaturik dago. Agian, aditza isilean gordetik daukaten esaldietan egon daiteke efekturik azpimarragarriena, estiloaz den bezainbatean. Nolanahi ere, batek bere buruari beti galdetzen dio azken emaitza ezin ote daitekeen oraindik harantzago eramanez, hizkuntzaren artisau-mailaraino edo preziosismo-mailaraino alegia, zenbait libururekin gertatzen den bezala; esaterako, Patxi Zubizarretak bere itzulpenetan erakusten duen aparteko trebezia datorkit burura. Hori bai, jatorrizko obrak ez baldin badauka preziosismo-mailarik, zilegi ote da itzulpenak edukitzea? Hala balitz, horrek esan nahi luke liburu bat hobeto idatzita egon daitekeela itzulpenean jatorrizkoan baino, eta ondorioz, jatorrizkoa baino ederragoa izan daitekeela, behintzat estilo aldetik. Baina, zilegi al da hori egitea? Zilegi al da jatorrizkoa bera "gainditzea"..? Agian bai, nahiz eta inola ere ez izan itzultzaileari exijitzekoa. Itzultzaileak planteamendu hori egin dezake (ahal baldin badu), ala ez. Lehengo egunean irratia entzuten ari nintzen eta esatariak zioen euskal kanta batzuen bertsioek gainditu egiten dutela jatorrizko abestia... Nolanahi ere, honaino iritsita, norbaitek galdera hau egiteko eskubide osoa luke: jatorrizko liburuetan hiperlanduta ez dauden testuak itzulpenetan hiperlanduta eskainiko bagenu beti, nola bereiziko genuke prosa hiperlandua [jatorrizkoan] hiperlandua ez den prosatik? ☺

---

<sup>1</sup> Vasia, A. Kollontairen liburu bateko protagonista, orain dela gutxi irakurri dudana.